

## **HOTELA:**

Hotel baten okupazioa kudeatuko duen programa bat nahi dugu. Hotelak 20 gela dauzka eta 15 egunetako datuak gorde nahi ditugu. Ondorengo menua duen programa autoerrepikakorra sortu:

- a) **Erreserbak.** Hotelaren okupazio datuak irakurri (denak eta ordenan irakurri)
- b) **Gelen egoera.** Guztiz betetako gela kopurua (2 pertsona), partzialki betetakoena (pertsona bat ) eta hutsena kalkulatu
- c) **Lekurik?** Egun bat eta pertsona kopuru bat emanda esan ea egun horretan hotelean lekurik ote daukaten.
- d) **Okupazioa.** Kalkulatu zenbat gela dauden okupatuta egun bakoitzean eta ondoren esan zein den gela libre gehien dauzkan egunak.
- e) **Irten**

## **ERREZETAK:**

Sukaldari batek 10 errezetako liburu bat dauka eta beste gauzen artean bakoitzak beharrezkoak dituen produktuak eta haien kantitateak gordetzen dira. Ondorengo galderei erantzuteko gai izango den programa bat egin:

1. Irakurri eta taula batean gorde errezeta bakoitzak behar duen produktu kantitatea. Erabiltzen ez diren produktuak 0 bat izan beharko dute (ez dira zertan teklatutik irakurri behar). Irakurketa formatua ondokoa da:

Sartu produktu kantitateak:

*Errezeta, produktua, kantitatea:*    1                    2                    20

.....

*Errezeta, produktua, kantitatea:*    0                    0                    0

Hau da, irakurketa 0 0 0 irakurtzerakoan amaituko da.

2. Esan zein den hirugarren produktuko kantitate gehien behar duen errezeta.
3. Dimensio bateko taula batetan zenbat zero dauden adierazten duen funtzioa egin. Funtzio hau erabili ondorengo egiteko: taula berri bat sortu eta bertan errezeta bakoitzak zenbat produktu desberdin erabiltzen dituen gorde.
4. Ordenatu aurreko taula handienetik txikienera.

## **JARRAITU BEHARREKO PAUSUAK:**

A) Enuntziatua birritan irakurri eta ulertu.

B) DATU EGITURAK aukeratu:

- a. Analizatu enuntziatua eta programak kudeatu beharreko datuak aurkitu eta sailkatu.
- b. Aurreko puntuan aurkitutako datuak egoki gordetzeko datu egiturak aukeratu: taulak, eta aldagai solteak.
- c. Ikus ea datu egitura horiek aproposak diren egin beharrekoak egiteko.

C) Programa idatzi.